

Konrado Mugertza jn.
Kontseiluburua

07/10 IRIZPENA

Andoni Anasagasti jn.
Juan Carlos Castaño jn.
Javier Del Campo jn.
Pilar Etxabe and.
Gaizka Gabantxo jn.
Iosu M. Gangoiti jn.
Miren Izagirre and.
José Ramón Kortabitarte jn.
Arantza Laca and.
Gonzalo Larruzea jn.
Lurdes Lekuona and.
Rafael Murgiondo jn.
M^a Asun Olano and.
Pilar Ramírez and.
Ismael Redondo jn.
Raimundo Rubio jn.
Angel San Vicente jn.
Josu Sierra jn.
Manu Udaondo jn.
Imanol Zubizarreta jn.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2007ko uztailaren 10eko saiora bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Osoko Bilkura horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: **Oinarrizko Hezkuntzako curriculum zehazten duen eta Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntza ezartzen duen dekretu proiektuari buruz.**

I.- AURREKARIAK:

2/2006 Lege Organikoak eta 1523/2006 eta 1631/2006 Errege Dekretuek Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxienezko ikasketak ezartzen dituzte, hurrenez hurren.

Beste alde batetik, “Europa 2010 erabateko integrazioerantz: jakintzaren gizar-tea” Planak aurrera egin du Lisboan 2000. urtean egin zen gailurraz geroztik oinarritzko kualifikazioen definizioan, Europako Batzordearen 2005/0221(COD) proposameneari jasotzen den bezala.

Prozesu honek ekarri duen Europako Erreferentziazko Markoaren formulazioan, bizitza osoan ikasteko beharrezkotzat jotzen diren funtsezko zortzi gaitasunak definitzen dira. Gomendio hau 2006ko irailaren 26an onartu zen eta lehen aipatutako Errege Dekretuek jasotzen dute.

Beste alde batetik, duela zenbait urtetatik hona, hainbat kolektibok gogoeta egin dute curriculum propio honetaz, eta hausnarketa horietatik dokumentu batzuk sortu dira, esate baterako, “Derrigorrezko eskolatze aldirako euskal curriculum” (Bultzatzaileak: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola eta Sortzen-Ikasbatuaz), “Euskal Herrirako Curriculum” (Bultzatzaileak: Sarean, EHIGE eta BIHE, ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldeetako eta guraso elkarteetako ordezkariak), eta beste kolektibo batzuek bultzatutako beste zenbait (kooperatibak, etab.).

Hezkuntza Sailak Oinarrizko Hezkuntzako curriculum propioa lantzeko konpromiso publikoa hartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sistemako eragile nagusiekin, eta dekretu proiektu hau konpromiso horren garapena da.

806/2006 Errege Dekretuak etapa horiek 2007-08 ikasturtean ezartzeko egutegia finkatzen du.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek 37 artikulua, 5 kapituluaren banaturik, 6 xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, 4 azken xedapen bat eta 4 eranskin ditu.

I. kapituluak (1. artikulutik 8.era) dekretuaren helburua eta aplikazio eremua zehazten ditu. Printzipio orokorrak (3. artikulua) eta antolakuntzari buruzkoak (4. artikulua) ezartzen ditu, baita ere Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak (5. artikulua). 6. eta 7. artikuluek hezkuntzako gaitasun orokorrak eta oinarrizko gaitasunak zehazten dituzte hurrenez hurren. 8. artikulua ikasketa hauen helburuak definitzen ditu hezkuntzako gaitasun orokorrak abiapuntutzat hartuta eta oinarrizko gaitasunak kontuan izanik.

II. kapituluak (9. artikulutik 16.ra) curriculumaren antolaketaren inguruko alderdi orokorrak jasotzen ditu: curriculumaren definizioa (9. artikulua) eta pedagogi printzipioak (10. artikulua); Lehen Hezkuntzako jakintza-arloak (11. artikulua) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako jakintza-arloak (12. artikulua); elebitasunaren inguruko funtsezko alderdiak (13. artikulua). 14., 15. eta 16. artikuluek ordutegiari, eskola egutegiari eta ratioei buruzko irizpide orokorrak finkatzen dituzte.

III. kapituluak (17. artikulutik 23.ra) alderdi orokorrak zehazten ditu hezkuntza proiektuaren (17. artikulua), hizkuntza proiektuaren (18. artikulua) eta ikastetxe curriculum proiektuaren (19. eta 20. artikulua) inguruan. 21. artikulua ikasgelako curriculum plangintzari buruzkoa da. 22. artikulua, berriz, irakasle taldea definitzen du eta 23.ak Tutoretzako Ekintza Planaren inguruko alderdi nagusiak zehazten ditu.

IV. kapituluak (24. artikulutik 31.era) aniztasunaren tratamenduari buruzkoa da. Alderdi orokorrak (24. artikulua) ez ezik, Lehen Hezkuntzako aniztasunaren arretarako neurriak ere (25. artikulua) jasotzen ditu, baita ere DBHko aukerakotasuna (26. artikulua). Gainerako artikuluek programen nondik norakoak zehazten dituzte:

- Esku-hartze Globaleko eta Esku-hartze Espezifikoko proiektuak (27. artikulua)
- Curriculum Anitzeko Programak (28. artikulua)
- Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak (29. artikulua)
- Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleentzako Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelak (30. artikulua).
- Eskolatzeko Osagarriko Programak (31. artikulua)

V. kapituluak (32. artikulutik 37.ra) ondoko gaiak jorratzen ditu: eskolatzeko baldintzak (32. artikulua); ebaluazioaren ezaugarriak (33. artikulua); kurtso berean geratzeko (35. artikulua) edo hurrengora igarotzeko irizpideak (34. artikulua). 36. ar-

tikuluak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua eskuratzeko baldintzak zehazten ditu eta 37. artikulua ebaluazio diagnostikoa arautzen du.

Lehen Xedapen Gehigarria erlijio ikasketei buruzkoa da; Bigarrena Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sistemaren berandu sartzeko baldintzei buruzkoa eta Hirugarrena ikasketa hauen eta Musikako eta Dantzako Lanbide Ikasketa Artistikoen arteko bateragarritasunari buruzkoa. Laugarrena ikastetxeak baimentzeko prozedurari buruzkoa da eta Bosgarrena Helduen Hezkuntzari buruzkoa. Azkenik, Seigarren Xedapen Gehigarria curriculumak, eskola ordutegia eta egutegia zabaltzeko aukerari buruzkoa da.

Xedapen Iragankorrak egungo arauen indarraldia luzatzen du, dekretu hau garatzeko aginduak argitaratu bitartean. Beste alde batetik, Xedapen Indargabetzaileak Oinarrizko Hezkuntzaren antolamendu berria ezarri ahala indargabetuko diren arauen zerrenda jasotzen du.

Lehen eta Bigarren Azken Xedapenak arau hau ezartzeko egutegiari eta euskarara arloko salbuespenei buruzkoak dira. Hirugarren Azken Xedapenak arautegi garapena baimentzen du eta Laugarrenak araua indarrean noiz jarriko den zehazten du.

I. eta II. eranskinak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ordutegiak ezartzen dituzte hurrenez hurren. III. eranskinak Oinarrizko Hezkuntza amaitutakoan ikasleek bereganatu behar izan dituzten oinarrizko gaitasunak zehazten ditu. IV. eta V. eranskinak Lehen Hezkuntzako arloen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak jasotzen ditu.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluaren Osoko Bilkurak txosten-gai duen dekretu proiektu honek Oinarrizko Ikasketen curriculumak zehaztu eta ezarri egiten du EAEn. Arau honetan bi ekimen bateratu dira: alde batetik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzatuta curriculum propioa egiteko proiektua, eta bestetik, EAEn curriculumak Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak (LOE) zehaztutako egutegiaren arabera garatu beharra.

Lehen ekimenaren barruan, ikastetxeetako antolakundeak ordezkatzeko dituzten bi plataformak beste horrenbeste dokumentu prestatu dituzte, atarikoan islatzen den bezala; dekretu proiektu honek lan hauetako ekimen garrantzitsu batzuk jaso ditu eta estatuko arauak ezartzen duen markoan kokatu ditu. Ekimen honetan jardun duten antolakundeak pozik agertu dira egindako lanagatik eta parte hartzeko eta akordio bat erdiesteko borondatea adierazi dute.

Europako erakunde politikoak irakaskuntza arloan markatzen ari diren orientabideetara egokitu behar da curriculum berria, eta hezkuntza bideratu behar da gai-

tasunak lortzera, horretan bat datoz dekretu proiektu honetan bateratu diren ekimenak. Helburu hori erdiesteko, gaitasunen inguruko planteamendua curriculumaren diseinuan jasotzen da.

Balorazio orokor gisa, Kontseiluaren iritzian positiboak dira curriculum diseinu berriaren puntu hauek:

- Euskal hezkuntzaren ordezkari diren kolektiboek (Ikastolen Federazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz, EHIGE, BIHE, Sarean) proposamen hau prestatzeko fase batzuetan parte hartu izana.
- Curriculum proposamen hau Europako erreferentziazko markoaren barruan kokatu izana.
- Gaitasunen garapenean oinarritutako ikuspegia, eta hezkuntzako oinarritzko gaitasunak hezkuntzako gaitasun orokorrekin lotzen dituen planteamendua.
- Oinarritzko Hezkuntza batera planteatu izana, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza batean bilduta, printzipio eta helburu orokor berberak garatuz derrigorrezko hezkuntza osorako eta hezkuntzako bi etapa horien arteko koordinazioa bultzatuz.
- Inklusibotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sistemako giltzarri jo izana, dena dela, horrek dekretu proiektu honetan islatzen dena baino bultzada irmoagoa beharko du.
- Tutoretza eta Orientabidea arlo izatea, hezkuntzan bete behar duten eginkizuna funtsezkoa da eta.
- Euskal kulturari eman beharreko arreta, zentzurik zabalenean, ikasleen nortasun kulturala garatzeko, euskal herritarrak diren aldetik.

Irizpen honetan ondoko alderdi hauek aztertuko ditugu:

1. Dekretua onartzeko eta aplikatzeko unea.
2. Curriculum berriaren hezkuntza-oinarriak.
3. Antolaketa neurriak.
4. Eztabaida sozialean garrantzi berezia duten gaiak.
5. Xehetasun batzuk.

1. Dekretua onartzeko eta aplikatzeko unea.

LOE Legearen aplikazio egutegiaren arabera, curriculum berria 2007-08 ikasturtean jarriko da abian zenbait mailatan (Lehen Hezkuntzako 1. zikloa; DBHko 1. eta 3. mailan). Hortaz, nabarmendu nahi genuke Kontseiluak denboraz estu eman behar duela dekretu honi buruzko irizpena, eta horiek ez dira baldintzarik onenak partaidetza bultzatzeko eta analisisa lasai egiteko.

Ikastetxeen ordezkariak duten antolakundeek (sektore pribatuko ugazaben elkarteak, eta sektore publikoko ikastetxeen, zuzendarien eta gurasoen antolakundeek) parte hartu dute proiektua prestatzeko prozesuan, baina hezkuntza erkidegoko beste antolakunde eta kolektibo batzuk Kontseiluan noiz eztabaidatuko egon dira, beren iritziak eta proposamenak bideratzeko. Irizpena proiektu honen funtsezko alderdietan zentratuko da.

Dekretua berehala jarriko denez abian, galdera dat datorkigu burura aurrenik, nola aplikatuko ote den irakaskuntza-ikaskuntzen edukiak eta prozedurak ukitzen dituen arau hau, doi ikasturtea hasten denean argitaratzen bada. Edonola ere, aplikazioa erlatibizatzen gonbidatzen gaituzten hainbat arrazoi daude:

- Curriculum lehen ikasturte honetan ezartzeak ez dakar berekin, hasiera batean behintzat, arlo berririk gehitzerik.
- Proiektu honek arautzen dituen ordutegiak, ikastetxeen aukerakotasunaren barruan, bateragarriak dira orain artekoekin, beraz, praktikan ez da ezinbestekoa horiek aldatzea.
- Dekretu hau ezartzeak berekin ekarriko dituen curriculum aldaketak egokitu egin daitezke zikloak dirauen bi urteetan; ez dira nahitaez lehenengo ikasturtean egin behar.

Horrenbestez, Dekretu hau ezartzerakoan gauzarik garrantzitsuena zera izango da, ikastetxeei argi komunikatu ahal izatea curriculum planteamendu berriak eragingo dituen aldaketen ildoak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan, ikastetxeko barne antolakuntzan zein hezkuntza sistemaren antolakuntzan: zer aldatu behar da ikastetxeek gaitasunak irakats ditzaten, ikasle guztiek 16 urte dituztenean oinarriko hezkuntza gaitasunak erdiets ditzaten.

Baina ez gaude oraindik une horretan. Orain hasten dira parte hartzen Berri-tzeguneak, haiek lagundu behar diete ikastetxeei planteamendu berri hori zehazten eta aplikatzen. Beraz, behin Dekretuaren legezko eitea proiektu honetan zehaztu ondoren, curriculum berriari buruzko eztabaida hasiko da hezkuntza komunitatean, bereziki praktikara eramango duten irakasleen artean.

Lehenengo une horretako parte hartzearen ondoren, arreta berezia eskaini behar zaio irakasleei komunikatu beharrekoari, aplikazioari buruzko orientabideetatik hasita. Prestakuntza arloan, eskatu nahi genuke jarduera plan bat abian jartzeko, pertzepzioa egokia egon dadin curriculum berriaz eta horren ondorioez, hortaz, kontuan izan behar dira ikastetxeen ezaugarriak eta behar bezalako laguntza-baliabideak eduki behar dira.

2. Curriculum berriaren hezkuntza-oinarriak.

Lehenbizi ohar bat Haur Hezkuntzari buruz, izan ere, ez da Dekretu honen gaietako bat, eta hala ere gogoan izan behar dugu Lehen Hezkuntzako aurreneko mailen programazioa egiterakoan. Izan ere, EAEn eskolatze unibertsaleko aldiak 14 kurtso irauten du, 2 urteetatik hasita, hau da, nahitaezko Oinarrizko Ikasketen curriculumak arautzen duena baino lau urte gehiago. Haur Hezkuntzako 2. Zikloko eskolatzea %100ekoa da eta 2 urteko mailan %93koa.

Gaitasunetan hezteaz ari garela, eta ikaskuntzak bizitza osoan jarraitzen duenez, aurreneko urteetako hezkuntzak funtsezko garrantzia du, etorkizunean ikasiko dutena baldintzatzen du eta. Lehenengo etapa hauetan, familiak funtsezko eginkizuna du haurraren egituraketa kognitibo eta afektiboan, eta eskolaren esku-hartzea garapen hori osatzera dator. Gaitasunen planteamenduan indar handiagoa ematen zaio familien eginkizun hezigarriari, eta horrekin batera, nabarmentzen da erlazio handiagoa behar dela familiaren eta eskolaren artean. Haur Hezkuntza —lau maila horiek behintzat— curriculumaren programazio orokorrean sartuz gero, gaitasunez jabetzerakoan eskolaz kanpoko ekarpen hezigarriek duten garrantziaren ikuspegi hori jasoko litzateke.

Oinarrizko gaitasunen planteamendu berriak babes orokorra jasotzen du; III. eranskinean gaitasunen bi ezagurriak deskribatzen dira: aplikatzeko izaera —hots, testuinguru desberdinetara egokitu ahal izatea—, eta ezagutzen, prozeduren eta jarreren izaera integratzailea.

Dekretu proiektu honen artikuluetan eta eranskinetan, gaitasunen inguruko kontzeptuak gehitzen zaizkie aurreko curriculum garapenetako ohiko kontzeptuei; kontzeptu-familia berean elkarren ondoz ondo ager daitezke esapide hauek: helburuak, hezkuntza gaitasun orokorrak, oinarrizko hezkuntza gaitasunak, funtsezko gaitasunak, gutxienezko gaitasunak, gaitasunen gutxienezko jabetze mailak, oinarrizko gaitasunen gutxienezko mailak, eta gutxienezko helburuak. Horrek errepikapenak eragin ditzake, eta sinplifikatu beharra dago.

Kontzeptuzko hurbilketari erreparaturik, eta inguruko hezkuntza munduan gaitasunetan oinarritutako curriculum formulaziorik egin ez dela, bere atarikoan dekretu honek Lanbide Heziketa aipatzen du konparazio bat egiteko, bestalde maiz aipatzen ditu lan bizitza eta helduaroko bizitza, eta horrek desitxuratu egiten ditu hein batean etapa hauetako haur eta nerabeen garapenaren aldietako jomugak eta helburuak, pertsonaren prestakuntza integralerantz bideratu behar direnak.

Funtsean, oinarrizko gaitasunen inguruan antolatutako sistema berria abian jartzeko, aldaketak egin behar dira irakaskuntzen antolaketan eta ikaslearen eginkizunean ikasketaren subjektua den aldetik. Curriculum diseinu berriaren eta azpian dagoen egituraren arteko alderik deigarrienak dira jakintza sobera zatiturik dagoela ikasgaika (18) DBHn, eta irakasleak ikasgai horietara atxikirik daudela, alta, hori ikasketen integrazioaren aurkakoa da, baita curriculum planteamendu berriak eskatzen duen ikuspegi sistemikoagoaren aurkakoa ere.

Curriculumari buruzko dekretua eragingarria izango da irakaskuntzaren oinarrian dauden metodoak zalantzan jartzeko, irakaslearen jakintzaren transmisioan oinarrituta dagoen ohiko ereduaren errepikapena baino ez baitira askotan. Berrito aztertu beharko dira eskola materialak ikasleengan garatu nahi diren funtzio berrien arabera. Ebaluazio diagnostikoaren bitartez eta atzerapenen bat duten ikasle guztientzako neurri indargarrien bitartez, ikastetxeek ardura berriak bereganatzen dituzte eta, horiekin batera, eskumen gehiago ere izan beharko dituzte Administrazioaren aurrean, baliabideen hornidura eta administrazioari dagokionez. Hitz batez, Europako erakundeek estatu kideei ezarri dieten marko erkide berria argitu beharra dago kontzeptuetan, eta hori arian-arian egin behar da, bestalde, erreforma sakon batzuk egin behar dira irakaskuntzen antolaketan, metodologian eta ikastetxeen autonomian.

3. Antolaketa neurriak

Eskola egutegi eta ordutegiari buruzko xedapenek, ikasgelako ikasle ratioei buruzkoek, eta bestek zehaztu egiten dituzte curriculum berriak ezarritako helburuekin batera esleitu behar diren baliabideak, egungo baldintzen ildo beretik.

Eragozpen batzuk ikusten zaizkie dekretu proiektu honetan jasotako antolakuntza neurri batzuei:

a) Ikasgelako ikasle ratio maximoaren malgutasuna

LOE Legeak, ikasle etorkinen sarrera berantiarraren ondoreak ikastetxe mota guztien artean banatzeko, irekita uzten du aukera bat autonomia erkidegoek bi neurri har ditzaten ikasgela bakoitzeko ikasle ratio maximoa malgutzeko (87.2. artikulua): aurrematrikulan plazak gordetzea, eta ratio hori %10 igotzea. Dekretu proiektu honen ez ditu kontuan izan bi aukera horiek eta beste bat eskaintzen du (16.2. artikulua): gela batzuetan gehieneko muga gainditzea baimentzen du, zikloaren batez bestekoan gainditzen ez bada.

Kontseiluak azken irizpide hori kentzeko proposatzen du, baldintza berberak ezartzen dituelako ikastetxe guztientzat, eta errealitatean ikasleen osaera oso desberdina da batetik bestera. Ikasleen sarrera berantiarrak —gehienetan ikasle horiek etorkinak direlarik— desberdintasun horietako batzuk konpentsatzeko balio behar luke eta ez handitzeko.

Hartara, Kontseiluak proposatzen du ratioa handitzea xede honetarako baka-rik baimen dadila, eta bakarrik etorkin portzentaje baxuena duten ikastetxeetan, horrela, zona bereko ikastetxeetan behintzat ikasleen osaera poliki-poliki homogeneizatu dadin. Aukera honek kontuan hartzen ditu “tokian tokiko baldintza sozioekonomiko eta demografikoak”, LOE Legeak kasu honetarako planteatzen duen bezala (87.3. artikulua).

b) Irakasleak taldeei atxikitzea DBHn

2. puntuan esan dugu inkongruentea dela batetik jakintzaren hainbat arlo biltzen dituzten gaitasunak lortzeko helburua finkatzea eta bestetik programazioa ikasgai ugari eta lotura gabeen arabera egitea. Beste alde batetik, irakasleak ikasgai bat irakasteko aukeratzeko dira. Egoera honen ondore negatiboak leuntze aldera, dekretu proiektu honek bi neurri proposatzen ditu: ikasgela batean irakasten duten irakasleen kopurua “murriztea”, eta irakasle talde horren jarraitutasuna luzeagoa izatea etapan barrena.

Lehen faktoreari gagozkiola, proiektuaren 22.1. artikulua zehazten du “ikas-tetxeak antolakuntza neurrien bitartez saiatuko direla murrizten” irakasleen kopuru hori, eta horrek ez du inondik inora bermatzen hala beteko denik. Gai honetan, LOE Legea (23.6. artikulua) zorrotzagoa da hezkuntza administrazioen erantzukizunari dagokionez, eta eskatzen die “behar diren baldintzak sortzeko etapako lehen mailtan kualifikatuta dauden irakasleek ikasgai bat baino gehiago eman dezaten ikasle talde berean”. Kontseiluaren iritzian, Sailak gai hau arautu behar du lehenbailehen.

Hala bada, bete ahal izango da 12.2. artikulua dioena, izan ere, artikulua honek aukera ematen du ikasgaiak (hemen akats bat dago eta “arloak” agertzen da) “eremu orokorretan” antolatzeko, eremuaren hedapena zehaztu gabe. Curriculum aintzeko kasuetan, ikasleen denboraren %60 gutxienez bi eremu handitan biltzen da. Aukera hori, nolabait bigarren ziklora ere zabaldu behar litzateke.

Bigarren kontua irakasle taldeak DBHn izan beharreko jarraitutasuna da, eta horren alde, LOE Legearen xedapen batek (94. artikulua) lizentziatu titulua edo horren baliokidea eta pedagogi prestakuntza maila edukitzeko baldintza jartzen du etapa horretan irakasteko. Orain arte 1. Zikloa ematen duten irakasleak maisu-maistrak dira gehienetan, hortaz, ezin dira 2. Zikloan aritu. Hartara, Dekretu proiektu honek bi aipamen egiten ditu:

- 22.1. artikuluan, “Ahal den neurrian, ikasle talde bati arlo bat ematen dioten irakasleek jarraitu egingo dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan barrena”. Formulazioa orokorregia da eta aipatzen duen lau urteko epea oso luzea, beraz, gure iritzian berariazko aipamen bat egin behar litzateke Administrazioak puntu hau arautuko duela zehaztuz.
- 22.2. artikuluan, esaten da “behar bezala justifikaturik dauden kasuetan izan ezik, tutore bakoitza bi urte egongo dela gutxienez ikasle talde berarekin”. Hemen, arau izaera argia du, urte horiek bira mugatzen ditu eta taldeko tutoreaz ari da bakarrik.

c) Ordutegia zabaltzeko aukera

17.5. artikulua baldintzak jartzen dizkio aukera horri: familiek ekarpenik egin behar ez izatea, eta Hezkuntza Administrazioari eskakizunik ez ezartzea. Hitzek hitz irakurriz gero, ez da ulertzen nork hartuko dituen bere gain kontratazio berriak.

6. Xedapen Gehigarrian, curriculumean eta eskola egutegian ere zabalpenak egiteko aukera aipatzen da, “Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako baldintzak eta prozedura” errespetatuz betiere. Ohartarazi beharra dago Administrazioak zabalpen horiek egiteko baldintza eta prozedura horiek ondo zehaztu ezean, gaindiezinezko aldeak sor daitezkeela ikastetxeen artean eta, beharbada, sareen artean ere bai. Neurri horiek ondorio ekonomikoak izango dituztenez, Kontseiluaren iritzian, berdintasun politika bat sustatze aldera, Hezkuntza Administrazioak bultzatu behar luke maila sozioekonomiko eta kultural apalenerako ikasleak biltzen dituzten ikastetxeen parte hartzea esperientzia horietan.

d) Curriculum Proiektua prestatzea

Hasieran esan dugun bezala, Hezkuntza Administrazioak ahaleginak egin behar ditu dekretu hau horrenbesteko presaz aplikatzearen ondorioak leuntzeko.

Curriculum Proiektua egin baino lehen, Administrazioak orientabide argiak eman beharko dizkie ikastetxeei, gutxienezko gaitasun mailak zehaztu arlo bakoitzean, eta dokumentuen ereduak eman. Haur Hezkuntza ematen duten ikastetxeetan, etapa guztietako curriculumak batasun bat osatzen du, beraz, aurretiaz jakin behar dira etapa honetako curriculumaren zehaztapenak.

Proposatutako arau honek alde positibo bat dauka, hau da, ikasleak aurreko etapetako ikastetxeetatik hartzen dituzten ikastetxeek beren curriculum proiektuek koordinatu behar dituzte elkarrekin (20.4. artikulua). Administrazioak jarraibide argiak eman behar dizkie ikastetxeei koordinazio hori burutzeko.

Dekretu honetan zehazten diren agiriez gain, ikastetxe bakoitzak bere Bizikidetasun Proiektua egin behar luke; III. kapituluan jasotzen da nahitaez egin behar direla Hezkuntza Proiektua, Hizkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua, baina Bizikidetasun Proiektua ez da aipatzen.

e) Ebaluazio diagnostikoa

2008 ikasturtetik aurrera Lehen Hezkuntzako 4. Mailan eta DBHko 2. Mailan ikastetxeen ebaluazio diagnostikoa egingo da, eta oso informazio baliagarria aterako da hortik ikastetxeentzat eta Administrazioarentzat irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta horien oinarrian dagoen antolakuntza bera hobetzeko.

Informazio horren erabilerari buruzko erreparoei dagokienez, uste dugu 37.4. xedapenak behar adinako bermeak ematen dituela. Beste aldeko muturrean, berriz, erantzukizuna zehaztu behar da, ikastetxearentzat ez ezik, Hezkuntza Administrazioarentzat ere, neurri egokiak hartzerakoan. Horregatik iradoki nahi dugu horri buruzko aipamen bat gehitu behar dela 37.3. paragrafoaren hasieran, eta honela geratuko litzateke: “Ikastetxeek *eta Hezkuntza Administrazioak* kontuan hartuko dute ebaluazio hauetatik ateratako informazioa behar diren neurriak eta programak antolatzeko, besteak beste, ikasleei eskaintako arreta hobetzeko eta oinarrizko gaitasunen hedapena bermatzeko” (erantsitakoa letra etzanean).

f) Aniztasunaren tratamendua

Dekretu proiektu honetan aniztasunari buruz egiten den planteamenduan ez dago aldaketa handirik EAEn orain arte egin denaren aldean, eta bi puntutan oinarritzen da:

- Ikasleen banakako ezaugarrietan jartzen du arreta ia bakarrik, ezen ez ikastetxearen edota zonaren ezaugarri orokorretan. Hortaz, ez du garatzen LOE Legeak irekitzen duen arlo bat: 80. artikuluan, lege organiko honek aipamen bat egiten du “pertsona, talde edo lurralde eremu behartsuentzako konpentsazio-ekintzez”, 81.2. artikuluan, berriz, “konpentsatzeko hezkuntza esku-hartze bat behar duten ikastetxeak edo zona geografikoak” aipatzen ditu, eta 122.ean “... baliabide gehiago ikastetxe publikoei edo itunpekoiei... eskolatzen duten biztanleria aparteko premia egoeran daudenean”. Deskribapen horietan guztietan ikastetxea da konpentsazio-arretaren subjektua.

Argudio indargarri gisa esan daiteke bi faktore bereizten direla PISA probetan emaitzen desberdintasunak esplikatzen dituztenen artean: batetik, banakoen ISEK (indize sozioekonomiko eta kulturala) eta ikastetxearen ISEK, bereiz eta elkarren osagarri. Ikastetxe hauetako ikasleek aldean daramatzaten jatorrizko defizitak zuzentzeko neurriek bi faktore horiek izan behar lituzkete kontuan, beraz, neurri horiek izaeraz bereziak eta elkarren osagarriak izan behar lukete.

- Aniztasunaren arretarako neurriak Oinarrizko Ikasketen azken mailetan biltzen dira batez ere, DBHn, porrotaren adierazpenak —atzerapena, zailtasunak, moldatu ezina— begien bistakoak direnean. DBHko 2. zikloan curriculum aniztasuna aplikatzen da, eta DBHko 4. mailan, berriz, banaketa-gela gehienak, horrek esan nahi du ikasle ratioa txikia dela ikasgela bakoitzeko eta arreta handiagoa eskaini dakiekeela banan-banan. Ordurako ikasle askok utzi dute Bigarren Hezkuntzako ikastetxea Graduatu titulua lortu gabe, eta lanbide hastapeneko programetan, irakaskuntza osagarrikoetan eta abarreetan sartu dira.

Azken batez, ikasketa testuinguru erregularretako ikasleei banako arreta eskaintzeko baliabideak beste era batera banatzea proposatzen da etapa goiztiaragoen mesedetan, eskola porrotaren aurreneko zantzuak agertu baino lehen prebentzio politika bat aplikatuz, hasierako eskolatzeko mailetatik hasita ikasle guztiek gaitasun instrumentalez jabetzen direla ziurtatzeko.

- Neurri indargarriei erreparaturik, gehiago zehaztu behar litzateke noiz eta nola aplikatu behar diren, norik ematen duen laguntza hori eta tutorearekin koordinatzeko denbora, etab. Atal honetan, ikastetxe bakoitzaren egoera desberdina dela esan behar da, eta konpentsazio-neurriak proposatzen ditugu maila soziokultural apaleneko ikastetxeetarako.

g) Arloen inguruan

- Positiboa da tutoretzarako denbora esleitu izana, baina gero ez da sartzen arloen edo ikasgaien zerrendan.
- Kezkagarria da Gorputz Hezkuntzako gutxienekoen taulan proposatutako denbora murrizketa, izan ere, adierazpen atal hau funtsezkoa baita curriculumean proposatutako gaitasunak garatzeko.

4. Eztabaida sozialean garrantzi berezia duten gaiak

EAEko curriculum berriari buruzko informazio-tratamenduan bi gai nabarmendu dira: euskararen papera eta Euskal Herriaren izena. Eztabaidan daude halaber beste bi gai alde ideologikoa dutena: Giza eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza ikasgai berria sartu izana, eta erlijio ikasgaia.

a) Euskara

Dekretu proiektu honen arabera bakarrik daude euskara ikastetik salbuetsita beste hezkuntza sistema batetik etorrita gurean urtebete baino denbora laburragoaz eskolatuko diren ikasleak (2. Azken Xedapena). Beste kasuetan indargarri bat aplikatuko da bi urtez, eta hortik abiatuta ikasgaiaren programa komuna partekatuko dute gainerako ikasleekin.

Kontseiluaren iritzian, aski egiaztatuta dago gure hezkuntza sistemara Lehen Hezkuntzako maila aurreratuetan edo DBHn sartzen diren ikasleek, B edo D ereduetan sartzen badira, bi urte baino gehiago behar izaten dituztela beren gelako gainetarako ikasleen euskara maila berdintsua erdiesteko. Horrenbestez, euskara arloaren ebaluazioan, berandu sartu diren ikasleei inguruabar hori kontuan hartzeko eskatu nahi dugu.

b) Euskal Herriaren izena

Sailak anbiguotasun oro saihestu behar luke izen honen erabileraren inguruan eta argitu behar luke euskaltasuna 7 lurraldeen eremu geografikoari dagokion —Eranskina irakurrita ondorioztatzen den moduan— edo EAEko 3 lurraldeei dagokien, eta gauza bera Euskal Herriaren izenarekin.

c) Giza eskubide eta Herritartasunerako Hezkuntza

Ikasgai berri hau DBHko mailetako batean eta Lehen Hezkuntzako 3. zikloko mailetako batean ematen hasiko da. Kontseiluaren iritzian, proposatutako edukiek ikasleen herritar kontzientzia garatzeko balio ahal izango dute eta ikastetxeek behar adina tarte dute arlo honetarako proposatutako curriculumak eta ikastetxearen hezkuntza proiektuko printzipioek elkarrekin talka egin ez dezaten.

Izatekotan, eragozpen bat jar liteke, hau da, gai hauek eremu bereizi batean jorratzea ez da aski, aitzitik, ikaskuntza egoera guztietan izan behar dira kontuan, hortaz, zeharkakotasunezko izaera eman behar litzaieke. Aldea metodoan dago, gaiei heltzeko eran, alegia, edukiarekin, ordea, bat gatoz.

d) *Erljio ikasgaia*

LOE Legeko oinarrien agiria Kontseiluan eztabaidatu zenean adierazi genuen ez geundela ados erlijioen irakaskuntza konfesionala ikastetxe guztietan ikasleen nahitaezko curriculumaren barruan eskaini behar izatearekin.

EAEko curriculumari buruzko dekretuak erlijioa jaso behar du LOE Legearen aginduz, eta Lege Organiko horrek espainiar Estatuaren eta eliza katolikoaren arteko akordio bat jasotzen du, akordio hori konstituzioaren aurrekoa delarik.

Gogoeta berririk erantsi gabe, Euskadiko Eskola Kontseiluak bere desadostasuna adierazi nahi du berriro curriculumean erlijio ikasgaia sartu izanagatik.

5. Xehetasun batzuk

- Atariko lehen paragrafoa inklusioari buruzkoa da eta haren edukiarekin ados gaude, baina ez dago behar bezalako kohesiorik gainerako testuarekin.
- Atariko hirugarren orrialdeko azken paragrafoan lehen paragrafoa aipatzen da, baina ez oraingo agiri honetakoa, aurreko zirriborrokoa baizik.
- Atariko laugarren orrialdeko azken paragrafoan *euskal pertsona guztiak* esamoldea jasotzen da, eta beste egokiago batez ordezkatu behar litzateke.
- LOE Legearen 121.6. artikulua terminologia hobeki jasotze aldera, 17.3. artikulua honela idatzi behar litzateke: *“Ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartzea. Itunpeko ikastetxe pribatuetan, berriz, Hezkuntza Proiektua –nolanahi ere jakitera eman beharko dena- kasuan kasuko titularrak zehaztuko du”*.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko uztailaren 10a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia

KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.